



eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARRAKASTA

Unibertsitate arrakasta akademikorako programa

www.ehu.eus

Laguntzaileak

araba ✓
foru aldundia
diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa




fundación sm

ARRAKASTA PROGRAMA

Unibertsitate arrakasta akademikorako programa - ARRAKASTA Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru foru aldundiek bultzatutako ekimen aitzindaria da. Programak baldintza egokiak sortu edota sendotu nahi ditu haur eta nerabeen babeserako eta gizarte-inklusiorako foru aldundien sistemen barruan dauden gazteek

aukera izan dezaten unibertsitatean sartzeko eta euren goi mailako ikasketak arrakastaz bukatzeko.

GARAIAN ikertaldeak hautemandako premiaren ondorioz sortu zen Arrakasta programa, UPV/EHUren gizarte konpromisoaren barruan kokaturik dago, eta gure unibertsitateak pertsona guztiei ekitatezko eta aukera-berdintasunezko baldintzak eskaintzeko duen kezkaaren emaitza da.

ZER ESKAINTZEN DU?

Parte-hartzaile bakoitzari UPV/EHUko orientazio-teknikari bat esleituko zaio eta bera izango da **banakako laguntza eta jarraipena** egingo dituen ikaslearen unibertsitate-ikasketetan. Bestalde, SM Fundazioaren laguntza ekonomikoari esker, ikasleek beharrezko **laguntza baliabideak** izango dituzte unibertsitate-ikasketak egiteko:

- Ordenagailu eramangarriak maileguan
- Ikasteko materiala
- Jatordu eta garraiorako txartelak
- Fotokopietarako eta inprimatze-lanetarako kreditua
- Eta abar.

Horretaz gain, ikasleari bere ikastegian **tutore akademikoa** esleituko zaio, nahi izanez gero.

Arrakasta programa dinamikoa eta pertsonalizatua da eta baliabideak gazte bakoitzak hautematen dituen banakako beharren arabera ematen dira.

NORI ZUZENDUA?

Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundietako (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) haurrak eta nerabeak babesteko edo gizarteratzeko sistemaren

barruan adin-nagusitasunera iritsi diren gazteei edo gaur egun sistema horretan jarraitzen dutenei.

ZER EGIN BEHAR DA PARTE HARTZEKO?

Lehenik eta behin, ikaslea harremanetan jarri behar da kasuan kasuko foru aldundiko Arrakasta programako arduradunarekin. Interesatuak programan parte hartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatuta, arduradunak UPV/EHUko Ikasleentzako

Argibide Zerbitzuari jakinaraziko dio ikasleak programan parte hartzeko interesa duela.

Hori jakinda, orientazioko teknikaria harremanetan jarriko da ikaslearekin, lehenengo elkarrizketa izan eta ikaslearen premiak zehazteko.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO ETA HARREMANETARAKO:

www.ehu.es/ikasleak/arrakasta

